

**PEDRO PUJANA AGIRREGABIRIA**  
**(Oletan jaio: 1915-VI-28 - Begoñan hil: 2001-II-4)**

***Aurkezpena***

*Karmel* aldizkari honen azken alean (2000ko 4.ean) Pedro Pujanari buruzko idazlan luze bat eskaini neutsuen beraren bizitzaren eta lanen barri zabala emonez. Gaixorik edota bizitzeko gogoia galduta edo txarto ikusten nebalako eskaini neutsuezan orduko lerroak, Bilbon argitaletxeek emon eutsoen “*urrezko luma*” atxakitzat hartuta. Egin-eginean bere berak hil aurretik irakurri egizan. Poz handia hartu eban, horren barri izatean.

Oraingo honetan, bizkaieraz berba egiten dogun euskaldunok zor deusoguna garbitzeko asmoz edo egiten dot. Egin bere Pedro Pujanak, gaur egun baino erraztasun gutxiago egoan garaietan euskararen alde jo eta ke lan egiten jakin ebalako. Idatzitako liburuez gainera, hainbat eta hainbat lan argitaratu zituen aldizkarietan. Bateren bat oraindino argitaratu barik da. Guztiak baturik liburu eder bat osatu daitekeela uste dot. Behar bada, hori be egin beharko dogu geroago.

Honako orrialde honeetan, baina, beraren bizitza eta ibilbidea berak bere lumaz idatzita irakurtzeko aukera eskaini gura deusut. Oso interesgarria dala uste dot, euskara atsegin eta